72. zenbakia

A.B.E.

www.amaraberri.org
abmorlans@teleline.es

2005eko Apirilaren 5a, asteartea

Editoriala

Kaixo gu Martin, Ander, Adur eta Andrea gara. Gaurko A.B.E-a gustatzea espero dugu. Irakurri eta gozatu.

AGUR !!!

XABOI NATURALAK

Nerea Herraetak eta Garbiñe Mujikak xaboin naturalak egiten dituzte. Xaboi hauek kolorez beteta daude eta Naxari izena jarri diete. Kolore eta formarengatik dira diferenteak. Xaboi hauen osagaiak naturalak dira . Kolore eta marrazkiz beterik daude eta horregatik fabrikazioak landhandia eskatzen du. Nahiz eta naturalak izan , politak badirela erakutsi nahi dute. Olio eta belarrak dira osagaiak. Erdi aroko merkatuetan saltzen dituzte xaboiak baina ezkontzetan ere oparitzen dira.

Erredaktoreak



Martin, Ander, Andrea, eta Adur

aurkibidea

1.- *AZALA: Xaboi naturalak*
2.- GURE ESKOLA : Mariaren urtebetetzea
3.- ALBISTEAK: AITA SANTUA,ERREALA,TELEBISTA
4.- *LUMAREN KILIMA*: deskribapena
5.- *GU ERE IDAZLE: gauza misteriotsua*
6.- *ENTRETENIGARRIAK*: hizki zopa

Gure eskola

Maríaren urtebetetzea.

Martxoaren 28an, (astelehena) María Torrecillaren urtebetetzea izan zen.

ZORIONAK !!!



" Bide Hezkuntza"ko Udaltzainari

elkarrizketa

1– Nola duzu izena?
- Angel.

2– Zure lana gustatzen zaizu?
- Bai.

3– Zergaitik aukeratu zenuen lan hau?
- Aukera izan nuelako eta sartu egin nintzen.

4– Zenbat urte daramazkizu lan honetan?
- 20 urte.

5– Zenbat lan desberdin egin dituzu?
- Hau eta beste bat.

6– Zenbat urtekin hasi zinen?
- 25 urtekin.

7– Jarraitzeko asmoa duzu?
- Bai.

8– Asko nekatzen zara lanean?
- Batzuetan bai.

9– Eskoletan ibiltzen zara bakarrik?
- Ez beste lan batzuk ere egiten ditut.

albisteak

NAZIOARTEA

AITA SANTUA HIL DA

Vatikanoko San Petri basilikan Joan Pauloren hil kapera jarri dute jendeak azken agurra eman ahal izateko.

kirolak

ERREALA OSASUNAREN AURKA

Larunbatean Errealak Osasunaren aurka 2-0 irabazi zuen. Golak Gari Urangak eta Karpinek

KULTURA

TELEBISTA GUZTIAK AITA SANTUARI BEGIRA

Larunbatean Aita Santua hil egin zen eta harez geroztik telebista eta egunkariak Vaticanon daude. 24 orduetan daude grabatzen Joan Pablo 2.ari buruzko erreportaiak.

LUMAREN KULTUMA

DESKRIBAPENA

Nik deskribatuko dudan tokia oso polita da. Erromantikoa da . Jende asko joaten da. Leku hau Italian dago. Eliza asko ere daude. Hiria zubiz beteta dago. Eta orain pistarik handiena kaleak urez beteta daude eta "gondola" famatuak daude.

Pista hauekin espero dut hiri polit hau ezagutzea.

NESTOR JAVIER ELIZONDO

Gu ere idazle

Gauza misteriotsua

Gehienak txikiak izaten dira. Batzuk koloretakoak izaten dira eta beste batzuk metalezkoak.

Denak desberdinak dira, batzuk ezik, etxera sartzeko beharrezkoak dira. Kaxa batean sartzen duzuna, ateratzeko balio du. Ez du aurpegirik baina hortzak ditu eta nahiko punta motza dute. Ate guztiek irekitzeko dituzte.

Zer da?

Larraitz

Euria

Euria

Momentu honetako tenperatura: 14°
Atzoko tenperaturarik beroena: 20°
Gau honetako tenperaturarik hotzena: 13°
Zerua: Lainotuta
Lurra: bustita
Haize mota: Barea
Norabidea: Mendebaldea
Euri mota: Ez du ari une honetan
Euri kantitatea: 3 l m^2ko

Esaera zaharra:
Urte euritsu, urte ogitsu.

entretenigarriak

ABE HITZA AURKITU PORTADAKOAK EZ DU BALIO.



T	O	N	O	T	Z	H	E	L	K	H	U
M	A	U	L	B	A	U	G	M	O	I	L
N	B	P	I	Z	E	B	Z	U	N	O	N
H	Z	A	B	O	A	E	L	A	K	L	P
U	P	G	I	H	U	E	H	U	O	G	A
A	L	H	T	U	A	T	Z	A	R	O	U
N	X	B	O	E	N	I	N	G	D	X	K
T	X	S	R	H	Z	A	H	O	E	Y	G
O	G	H	J	Y	W	D	G	H	K	O	Ñ
N	B	V	N	M	L	J	G	A	E	R	G

Gaia: Hegazkinak

Arauak:Hizki zopa honetan ezkerretik eskubira eta goi tik behera dauden 3 hegazkinen izenak bilatu behar dituzu

IÑIGO SAINZ